

Altza-Herrera

Larraitz Garmendia [fnoa.: 943-391267]

Urriaren azken astean, Altza eta Herrerako elizetan, «Abesbatzen bederatzigarren emanaldiak» izango dira. Duela bederatzita urte Tolosako Ekinbide Etxearekin batera eta Tolosako Abesbatz Lehiaketarekin bat eginik, Altza eta inguruko elizetara Tolosan parte hartzen duten abesbatzak ekartzea erabaki zen. Aurtengoan emanaldi hauen barruan bi talde izango ditugu.

Urriaren 30 eta 31

Urriaren 30ean eta San Martzial parrokian, arratsaldeko 20.00etatik aurrera, Norbegiako Ensemble 96 taldea izango da. Stegan Skolkek eratu eta zuzendutako Norbegiako abesbatz ospetsuenetakoa da eta 1996ko irailean sortu zen. Bost urte lanean gogor aritu ondoren, arazo ekonomikoak zirela eta desagertu egin zen. Halere, ekimen

**Ensemble 96
Norbegiako
abiesbatz
ospetsuenetakoa
da**

Norbegia eta Venezuelako abiesbatzak

pribatuari esker aurrera ateratzen ari da berriro.

Herrerako San Luis parrokian berriz, Venezuelako Villa de Cura abesbatza arituko da urriaren 31ean arratsaldeko 20.00etan. 1970ean gabonetako ospakizunetan abesteko parrokiako abesbatza gisa eratu izan zen. Hala ere, laster

mugak zeharkatu zituzten eta dagoeneko zortzirehun kontzertu baino gehiago eskaini dituzte. Gaur egun, Niños Cantores de Villa de Cura Fundazioak eskola bat dauka eta 250 ikasle dituzte bertan. Guztira 45 partaide arituko dira Herrerako elizan, 26 haur eta 19 heldu.



Kanpoko abesbatzak entzuteko parada izango dute altzatarrek.

Egia

Aitziber Gurutzeaga [fnoa.: 943 431228]

Diapositibak eta gaztain jatea Antxetarekin

Antxetako udako kanpaldiko diapositiba emanaldia izango da urriaren 23an Haur Txokoan. 17.00etan hasiko da eta haur eta gurasoei eskainia da. Bestalde, gaztain jatea eta jolasak antolatu ditu Haur Txokoak datorren hilaren 6rako Antxeta plazan.

Ttan Ttakun airean

Ttan Ttakun irratia emititzen hasi da berriro astelehenetik ostiralera.

Egun osoan zehar musika entzun daiteke eta 20.00etatik aurrera berriz, irratsaio ugari entzun ahal izango dira: abiadura handiko trenaren aurkako asanblada, intsumituak, tertuliak...

Datorren hilaren 3an eta 19an, Lauaizetako DBHko lehen mailako ikasleek irratsaioa aireratuko dute 15.00etatik 16.00etara.

Gurasoen arteko topaketak

«Zeintzuk dira nerabetsunak sortzen dituen kezkak? Beldurraren gestioa familian» izenburupean gurasoentzako topaketak antolatu ditu Lauaizeta ikastolak. Azaroaren 4an, 11an eta 18an izango dira 17.30etatik 19.30etara kultur etxean.

Topaketa hauetan gurasoei sortzen zaizkien beldurrak eta kezkak landuko dira: seme-alabek erretzen duten, drogak hartzen dituzten, sexu harremanak dituzten...

MAHALA baserriko esneki naturalak

- BEHI GAZTA FRESKOA
- YOGURRAK: NATURALAK • DESNATATUAK
FRUITUDUNAK

Mahala baserria • LEABURU • Tfnoa.: (943) 673499

LEARN

UNDERGROUND
ENGLISH

UNDERGROUN ENGLISH • Elkano kalea, 8 behea • Tfnoa.: (943) 420831